

Kontzertuen agenda

Leku hau zabalik duzu zure ekitaldien berri emateko

Abisua astearte eguerdiko 14:00ak baino lehen eman ezazu, arren

Osteguna 7

- BILBO ▶ Stubbom All Stars, Skinnerbox eta Rocker T. Kafe Antzokian. 22:00etan. 800 pezetan. New Yorkeko hiru ska talde.
- DONOSTIA ▶ DJ Pez. Etxekalte tabernan.
- IRUÑA ▶ Kiko Veneno. Gaiarre antzokian. 21:00etan.
- LOGROÑO ▶ La Cabra Mecanica. Gonzalo de Berceo aretoan. 21:00etan. Actual jaialdiaren barruan.

Ostirala 8

- BILBO ▶ Fito & Fitipaldis. Kafe Antzokian. 22:00etan. Platero y Tu taldeko abeslari eta gitarra joleak bere bakarkako lana aurkeztuko du bere hirian.
- ▶ Nosotrash. Bilborock aretoan. 22:00etan.
- DONOSTIA ▶ DJ Makala. Etxekalte tabernan.
- ELGETA ▶ Sei Urte eta Onddo Deabru. Gaztetxean. 22:30etan. Berrizko bi talde.
- ELORRIO ▶ Joseba Tapia eta Koldo Izagirre. Arriola kultur aretoan. 22:30etan.
- LASARTE ▶ 7 Eskale. Manuel Lekuona kultur etxean. 20:00etan. 500 pezetan.
- SANTURTZI ▶ Zea Mays. Mamariaga auzoko etxe okupatuan. 20:00etan.
- SODUPE ▶ Piztiak. Herriko tabernan. 20:00etan.

Larunbata 9

- ARRASATE ▶ Segismundo Toxicomano eta Latex. Gaztetxean. 22:00etan. Segismundo Toxicomano taldeak



Zazpi eskale zain dira Lasarten

Barrenkaletik Lasarteko Manuel Lekuona kultur etxera joango dira Zazpi eskale taldeko kideak bihar. *Barrenkaletiko Bluesa* izeneko azken proiektuarekin ari dira lanean azken aldian, eta hala dihardute Euskal Herrian. Bertsoak eta musika uztartuz drogen munduaren inguruan idatzitako bertso paperak eskaintzen dituzte Igor Elortza eta Unai Iturriaga bertsolariak, Josu Zabala Hertzainak taldeko kide ohiak eta beste lau taldekidek. Esan bezala, Lasarte-Oriako Manuel Lekuona kultur etxean izango da, bihar, 20:00etan. Sarrerak 500 pezeta (20 libera inguru) balioko du.

bere lehendabiziko diskoa kaleratu du Potencial hardcore disko etxearen eskutik.

- AZKOITIA ▶ Ostias Mil eta Hyssopus. Mataderoan. 22:00etan.
- DONOSTIA ▶ Kiko Veneno. Victoria Eugenia antzokian. 21:00etan.
- ▶ DJ Chico. Etxekalte tabernan.
- ▶ Las Brujas. Bukowski tabernan. 22:30etan.
- ELGOIBAR ▶ Bidetik. Gaztetxean. 22:30etan.
- HONDARRIBIA ▶ Joxe Ripiau, Lif, Gomm eta Sekula Tenk. Soroeta pilotalekuan. 22:00etan. 800 pezetan. Presoen alde
- IRUN ▶ Nosotrash. Tunk! aretoan. 22:30etan.
- LARRABETZU ▶ Zein? eta Keats. Gaztetxean. 23:00etan.

Zein? eta Keats zuzenean.

LARRABETZU ▶ Larrabetzuko Gaztetxean jaialdi polit bat egingo dute larunbat honetan. Bi talde, biak bizkaitarrak, izango dira beren kantuak aurkezten: Zein? eta Keats. Gainera, Deustuko taldeak bere lehenengo diskoa dena aurkeztuko du.

- LOGROÑO ▶ Estrella Morente eta David Peña Dorantes. Breton antzokian. 20:30etan. Actual jaialdiaren barruan.
- SORALUZE ▶ Naun. Gaztetxean. 22:30etan.
- URDUÑA ▶ Zea Mays. Romulo tabernan. 24:00etan.

Igandea 10

- LOGROÑO ▶ Navajita Plateá eta Martires del compás. Breton antzokian. 20:30etan. Actual jaialdiaren barruan.

Asteartea 12

- DONOSTIA ▶ Bide Ertzean. Koldo Mitxelena kulturunean. 19:30etan. Taldearen lehenengo diskoaren aurkezpena.

Osteguna 14

- BILBO ▶ Haurtzarrak eta Utikan. Kafe Antzokian. 22:00etan.
- ▶ Los Piratas. Bilborock aretoan. 21:30etan.
- BORDELE ▶ Ludwig Von 88. Barbey aretoan.
- LIZARRA ▶ Flitter. Gaztetxean.

Ostirala 15

- BILBO ▶ The Silos eta Zein?. Kafe Antzokian. 22:00etan.
- DONOSTIA ▶ Jerky Turkey eta Non Grato. Trintxerpeko Mogambo aretoan.
- IRUN ▶ Bad Sound System. Tunk! aretoan. Reggae jaia eta sarrera doan.



Skalariak taldearen 25 single

Skalariak taldearen 25 CD-single ditugu zuen artean zozketatzeko. CDak *Solo vivir* kantu berria, *Phoenix city* abestiaren bertzio bat eta *Fuego de revolución* kantua- ren nahasketa berri bat biltzen ditu. Idatzi barkatu amara eta agur jator bat egiguzue.

Kafe Antzokirako sarrerak

Bilboko Kafe Antzokian egingo diren kontzertu batzuetarako gonbidapenak ditugu zozketatzeko. Jaialdi bakotzerako sei sarrera ditugu. Idatzi Barkatu amara zein zozketan parte hartu nahi duzuen adieraziz:

- Osteguna 14: Haurtzarrak eta Utikan. 22:00etan.
- Ostirala 22: Dinah Flow. Malcolm Scarparen talde berria. 22:00etan.
- Mikel Urdangarin eta Itzaletik.

ZUZENEAN jon eskisabel

Anari • Urtarrilak 2. Donostiako Jareño kultur etxean. Beteta

Inperfekzioaren xarma

Ustekabe atsegina larunbatekoa. Donostiako Egia auzoko Jareño kultur etxe dotorea leporaino bete zen Anari ikusteko. Urriak izaten dira kantari azkoitiarra ikusteko aukerak, are urriagoak taldearen laguntzarekin bada. Larunbatekoa, nolabait, Anariren Donostiako aurkezpena zen, diskoa atera zuenetik urte eta erdi igaro bada ere. Ikusleen artean, euskarazko emanaldietan ikusten ez diren aurpegi ezagun dezente.

Ohiko musikariak izan zituen lagun: Pello Ramirez (txeloa eta akordeoia), Xabi Strubell (gitarra espainola), Mikel Abrego (bateria) eta Eneko Abrego (ahotsa). Musikari trebeak eta esperientzia handikoak, Anariren inperfekzioaren zerbitzura. Gauzak bat-batean egiteak duen xarma maite

du Anarik, kontzertuan aitortu zuenez. Horrela, ez du arazorik Pettirekin elkarrekin jotzeko kontzertu oso bat aurretik entseatu gabe -Beran egin zuen bezala-, edo Strubellek ekarritako punteo berria zuzenean estreinatzeko. Asko irabazten du Anarik taldearekin (eta nork ez?), bereziki kantu intentsoenetan (*Herra kanta*) eta Ramirezek akordeoia hartzen duenean (*Galderak 2*). Anarik bere dohain nagusiarekin, ahotsarekin, jokatzeko du, erregistro ezberdinak bilatuz, baina beti inperfekzioa lagun duela, horrek dakarren ona eta txarrarekin.

Dituen kantu guztiak eskaini zituen, eta bi berri aurkeztu zituen: *Aztarnak* eta «itxaropenari buruzko kantu bat». Lehen bisaren aurretik Eneko Abrego igo zen taulara, eta Gonzalo Suarezzen ipuin bat irakurri zigun euskaraz. Jendeak beste bis bat eskatu zuen, eta *Herra kanta* berriz jotzeko baliatu zuen, lehenengo aldian hitza ahaztu baitzaitzaion.